

## LEZOKO UDALAK EZ DU ZORRIK

DEUDA CERO EN EL  
AYUNTAMIENTO DE  
LEZO

# 12'

EKAINA 2022 JUNIO

**KOZ: ZURE BIDELAGUNA,  
GEHIAGO ETA HOBETO  
MUGITZEKO**  
KOZ: TU ACOMPAÑANTE,  
PARA QUE TE MUEVAS  
MÁS Y MEJOR

pg. 2

**LEZOKO UDALEKUAK,  
LASTER**  
LOS UDALEKUS DE  
LEZO, A LA VUELTA DE  
LA ESQUINA

pg. 2



DESKARGATU ETA IRAKURRI  
ALDIZKARIA ZURE  
MUGIKORREAN

DESCARGA Y LEE LA  
REVISTA EN TU MÓVIL

 @lezo\_udala

 @LezoUdala

 @LezokoUdala

Lezoko Udala  
Gurutze Santuaren Plaza, 1  
20100 Lezo  
943 524 650  
[www.lezo.eus](http://www.lezo.eus)





## Urtea aurrera doa ilusioz beterik

### El año avanza con mucho ilusión

Jesus Mari Martiarena  
Lezoko Alkatea

Urtearen erdialdera iritsi gara eta gogo eta ilusio handiarekin gaude, lezoarren ongizatearen alde lanean jarraitzeko.

Herria hobetzeko hainbat proiektu ditugu aurrean, eta kultura eta kirol agenda oso zabala. Uda hurbiltzen ari da, eta horrekin batera udalekuak eta kirol ikastaroak.

Herriko jaiak ere hementxe ditugu. Pena handiz ezin izan ditugu ospatu azken bi urteetan pandemiarengatik. Baina, Jai Batzordeak gogor lan egin du eta guztion gozamenerako egitaraua antolatu du.

Lerro hauekin, eskerrik beroenak eman nahi dizkiot Miguel Angel Sanchez Lezoko Udaleko Obra eta Zerbitzuetako zinegotzia izandakoari, apirilean erretiroa hartu zuen eta bere lana eskertzekoa izan da.

Llegamos a mitad de año y con muchas ganas e ilusión de continuar trabajando por el bienestar de los y las lezoarras.

Tenemos ante nosotros varios proyectos para mejorar el pueblo y una agenda cultural y deportiva muy variada. Se acerca el verano y con ello los udalekus y los cursillos deportivos.

Tenemos también aquí mismo las fiestas del pueblo. Con mucha pena no hemos podido celebrarlas en los dos últimos años debido a la pandemia. Pero la Comisión de Fiestas ha trabajado duro y ha organizado un programa para el disfrute de todos y todas.

Quiero aprovechar estas líneas también para agradecer la labor realizada por Miguel Ángel Sanchez, el hasta ahora concejal de Obras y Servicios del Ayuntamiento de Lezo que se jubiló en abril.

## Olazar ibaiko estaldura kendu eta ingurua naturalizatzeko obrak aurrera doaz

### Continúan las obras para eliminar la cobertura del rio olazar y naturalizar el entorno

Proiektuaren xedea da Eugenio de Ochoa kaletik pasatzen den Olazar errekan estalduriko ibai-tarte baten sekzio-eskasia konpontzea, ibilgua naturalizatzu, sekzioa aire zabalean hondeatuz eta ibai-tartearen ahalmen hidraulikoa hobetuz; hala nola ibaiaren ingurumena leheneratzea ahal del neurrian.

Lan horiek Lezoko Udalak eta Uraren Euskal Agentziak sinatutako lankidetzeta protokoloaren baitan garatzen dira.



El objetivo del proyecto es solucionar, en un tramo, la insuficiencia de sección del tramo subterráneo del río Olazar, mediante la naturalización del cauce, excavando su sección al aire libre y mejorando la capacidad hidráulica del tramo, así como la recuperación ambiental del río en la medida de lo posible.



## Lezoko Udalekuak normaltasunarekin egingo dira

### Los udalekus de Lezo se han organizado con normalidad

Pandemiaren eragin negatiboak alde batera utzita, bi urte ondoren normaltasunez eta gogoz beterik antolatu ditu Lezoko Udalak 2022ko udalekuak. Distantziak, musukoak, burbuilak, distantziak... alde batera utzita aurten betiko moduan haurrak aske izango dira nahieran ibiltzeko.

Hala, Lezoko 2022 urteko udalekuetan izena emateko epea maiatzean ireki zen eta 200 plaza eskaini ziren.

Joan den urtean, izen-ematea internet bidez egitea gomendatu ondoren eta izan zuen arrakasta ikusita, aurten ere matrikulazioa horrela egitea proposatu du udalak.

Bi zerbitzu eskainiko dira aurten:

**Hurtzaindegi zerbitzua:** Lanean ari diren gurasoentzat zuzendutako zerbitzua da, 08:30etik 09:30era, udaleku irekiak hasi baino ordu bete lehenago. Prezioa 53 euro / Familia ugaria: 40 euro.

**Udaleku irekia (3-12 urte bitartekoentzat):** Herriko haurrek giro euskaldun eta atsegin batean jolasak, dantza, kantak, antzerkia eta beste hainbat ekintza egingo dituzte, Lezoko ohiturak eta ingurunea ezagutzen dituzten bitartean.

- **Norentzat:** 3 urtetik\* 12 urtera (2010etik 2019ra jaiok) Lezon 2022/01/01ean erroldatuak dauden haurrentzat. Bere bizilekua aldatu dutenak salbu edota etorkinen familiak. Kasu hauetan Lezoko ikastetxean matrikulatuak behar dute matrikulazioaren urtean.

\* 3 urteak eginak izan behar ditu.

- **Non eta noiz:** Lezon uztailaren 1etik 29ra (biak barne), astelehenetik ostiralera. Goizez 9:30etik 13:30era.

Intentando dejar a un lado los efectos negativos provocados por la pandemia, dos años más tarde, el Ayuntamiento de Lezo ha organizado con normalidad y entusiasmo los udalekus del 2022. Este verano los niños y niñas serán más libres sin tener que preocuparse de la mascarilla, las distancias, las burbujas...

De esta manera, el plazo de inscripción para los Udalekus de Lezo 2022 se abrió a lo largo del mes de mayo y se han ofertado 200 plazas.

Viendo el éxito cosechado el año pasado con la posibilidad de realizar las inscripciones vía Internet, este año también se ha recomendado que las inscripciones se realicen de manera telemática.

Se ofrecerán dos servicios este año:

**Servicio de guardería:** Dirigido a los padres y madres que trabajan, será de 08:30 a 09:30 horas, una hora antes de comenzar los Udalekus.

**Udaleku irekia (3-12 años):** Los niños y niñas participarán en juegos, excursiones, fiestas, bailes, teatros y muchas más actividades en un agradable ambiente euskaldun mientras conocen las tradiciones y el entorno de Lezo.

- **¿Para quién?:** Niños y niñas de 3\* a 12 años (nacidos entre 2010 y 2019) ya empadronados en Lezo el 01/01/2022. Salvo aquellos que ya han cambiado de domicilio o sean inmigrantes. En estos casos deberán acreditar estar matriculados en algún centro de enseñanza de Lezo.

\* Tiene que tener cumplidos los 3 años.

- **¿Dónde y cuándo?:** En Lezo del 1 al 29 de julio (inclusive), de lunes a viernes. Por la mañana, de 09:30 a 13:30.



# KOZ BERRIAREN AURKEZPENA

**KOZ: Zure bidelaguna, gehiago eta hobeto mugitzeko**

**KOZ: Tu acompañante, para que te muevas más y mejor**

4



**KIROL ORIENTAZIO  
ZERBITZUAREN ARDURADUNA:**

• Maddi Marquet Ferran

**Hitzordua hartzeko:**

• 674171681 – koz@lezo.eus

**KOZ-aren ordutegia:**

• **Bekoerrot:**

Asteartea: 9:00-11:00

Asteazkena: 13:00-17:00

Osteguna: 9:00-13:00

• **Osasun zentroa**

Asteartea: 11:30-12:30

**Lezoko Udalak Kirol Orientazio Zerbitzuko arduradun berria aurkeztu du, bere izena, Maddi Marquet Ferran. Baina, zer da KOZ-a eta zertan datza? Honi buruz hitz egiteko berarekin elkartu gara.**

**Kaixo Maddi, zein da zerbitzuaren helburua?**

Kirol orientazio zerbitzuaren helburua adin guztietako lezoarrak mugiaraztea da, aktiboagoak izatea. Bizitza aktiboak, hobe sentiarazten gaitu eta gainera osasun arazo gutxiago, osasun mental hobea eta bizi-kalitate handiagoa izatea lortzen du.

**Herritarrei laguntzea da zure helburua orduan orientatzaile gisa...**

Nik ematen dudana laguntza, norbere eguneroko errealitatea ezagutu eta horren baitan gustukoak izango dituen jarduerekin ohitura osasuntsu eta aktiboak sustatzean datza, proposamen pertsonalizatua diseinatuz. Herritar

batzuen kasuan hutsetik hasi eta zerbait egiten hasi izango da erronka; aktiboak direnekin aldiz, jarduera gehiago eta modu anitzagoan egitea.

**Zerbitzua garestia da?**

Azpitarratu nahi dut doako zerbitzu bat dela; ondoren gerta daitekeena da, pertsona kostua duen zerbitzu batetara edo erabilera libreko jarduera batetara bideratzea.

**Nori zuzendua dago?**

Adin guztiei zuzendutako zerbitzua da.

**Lezon, aktiboagoak izateko dozenaka ekimen daude, ezta?**

Bai. Besteen artean hauek aipatuko nituzke:

Talde dinamizazioak: Tipitopa, Martxan, Emakume korrikalariak...

Baliabideen garapena: ibilbideen diseinu eta dinamizazioa, parke osasungarri diseinu eta dinamizazioa, kale ekipamendua osatzeko proposamenak...

**Eskerrik asko!**

**El Ayuntamiento de Lezo ha presentado a la nueva responsable del Servicio de Orientación de Actividad Física, ella es Maddi Marquet Ferran. Pero, ¿en qué consiste el denominado servicio KOZ?**

**Hola Maddi. ¿En qué consiste el servicio?**

El servicio de orientación deportiva tiene como objetivo lograr que los y las lezoarras de todas las edades se muevan, que sean más activos. La vida activa hace que nos sintamos mejor y además consigue que tengamos menos problemas de salud, mejor salud mental y más calidad de vida.

**¿Es un servicio caro?**

Se trata de un servicio gratuito; aunque después puede ocurrir que la persona sea derivada a una actividad con coste o a una participación libre.

**¿A quién está dirigido?**

Es un servicio dirigido a todas las edades.

**En Lezo hay muchas actividades para mantenernos en forma?**

Sí. Entre otras, mencionaría: Dinamizaciones de grupos: Tipitopa, Martxan, Emakume korrikalariak...

**¡Muchas gracias!**



# ALDERDI POLITIKOAK



EAJ-PNVk egunero jarraitzen du lezoarren ongizatearen alde lanean.

Alde batetik, Portuko lursailaren lagapena laster lortzea dugu helburu Lezoko Udalak erabil dezan. Erabilera desberdinetarako leku egokia dela uste dugu.

Gainera, herriaren ongizatea ahalik eta ondoen sustatzen jarraituko dugu, horretarako, Lezoko Udalak zorrik ez izatea lortu dugu.

Gure herriarentzat positiboa den beste albiste bat, Mendekosteen ospakizuna izango da, pandemiak eragindako 2 urte oso gogorren ostean. Jasotzen ditugun proposamen guztietan laguntzeko prest gaude. Zuhurtziazko mezua bakarrik helarazi nahi dugu, oso gertu baikaude desiratutako normaltasuna lortzeko.

EAJ-PNV continúa día tras día, trabajando por el bienestar de los y las lezoarras.

Por un lado, queremos lograr en un plazo breve un acuerdo para la cesión del terreno del puerto para uso del Ayuntamiento de Lezo. Creemos que es un lugar idóneo para adaptarlo a diferentes usos.

Además, seguiremos fomentando el bienestar del pueblo de la mejor manera posible, para ello, tenemos las arcas del Ayuntamiento de Lezo totalmente saneadas.

Otra noticia positiva para nuestro pueblo será la realización de las fiestas tras 2 años muy duros de pandemia. Estamos dispuestos a apoyar todas las propuestas que recibamos. Solo queremos transmitir un mensaje de prudencia, porque estamos muy cerca de lograr la ansiada normalidad.



Lezoko hainbat eragileren lanari esker Mendekoste jaiez gozatzeko aukera izango dugu. Herriko jaietatik haratago, jai herritarrak ditugu gurean. Izan ere, herri-eragileei esker ikusi ditugu Trapujale, Zabarre, Arrantzale eguna... bezalako ekimenak sortzen eta Lezoko herri-bizitzan errotzen. Hala, herri-kultura, herritarrek parte hartzen duten eta komunitate zehatz baten ezaugarri loturik dagoen kultura gisa ulertzen dugu. Nolako herria nahi dugun irudikatzen eta eraikitzen ezinbestekoa.

Hainbat belaunaldik egindako lanari esker eutsi dio Lezok bere herri-kulturari, baina aurrera egin ahal izateko, bizirik behar du. Bilakaera behar du. Bide horretan sakontzeko, herri-kultura eta herri-eragileak sendotzeko, hausnarketa-prozesua egitea proposatu zuen EH Bilduk. EAJ-PSEko gobernu taldeak, aldiz, bigarren kultura teknikari postua sortzeari eman dio lehentasuna. Bi ikuspegi, bi eredu desberdin.

Gracias al trabajo de diversos agentes de Lezo podremos disfrutar de las fiestas de Pentecostés. Y es que gracias a los agentes populares hemos visto surgir y arraigar en la vida popular de Lezo iniciativas como Trapujale, Zabarre, Arrantzale eguna...

Entendemos la cultura popular como aquella en la que su ciudadanía participa y está vinculada a las características de una comunidad concreta. Imprescindible para imaginar y construir qué tipo de municipio, que tipo de país queremos. Lezo ha conservado su cultura popular gracias al trabajo de varias generaciones, pero para poder avanzar tiene que estar viva. Necesita evolución. Para profundizar en ese camino y fortalecer la cultura popular y los agentes populares, EH Bildu propuso un proceso de reflexión. El equipo de Gobierno del PNV-PSE, en cambio, ha priorizado la creación del segundo puesto de técnico de cultura. Dos enfoques, dos modelos diferentes.

5



La Autoridad portuaria de Pasaia ha cedido al Ayuntamiento los terrenos situados junto al polideportivo y que en la actualidad se utilizan como aparcamiento. Así se cumple una reivindicación histórica de los vecinos y vecinas del municipio. Para el PSE-EE es una gran noticia para el futuro social y urbano del municipio ya que el Ayuntamiento podrá llevar a cabo una reforma integral de este entorno degradado. La apuesta del PSE-EE, ya es conocida y es desarrollar en ese espacio diferentes equipamientos comunitarios que se conviertan en motor fundamental para la regeneración urbana de ese ámbito revertiendo todo ello en la calidad de vida de los vecinos y vecinas, si bien apostamos por llevar a cabo un proceso de participación ciudadana para definir los usos finales de los espacios.


Más concretamente y en base a las normas urbanísticas vigentes nuestra solución es construir plantas para aparcamientos bajo rasante y encima un edificio polivalente que albergue equipamientos deportivos, culturales y de servicios que cubran las necesidades presentes y futuras del municipio.

Horrela, alde batetik, Lezok "azkenean", areto eszenikoak, erakusketa-aretoak, elkartentzako guneak eta abar izango dituen Kultur Zentroa eskuratzeko aukera izango du, eta bestetik, dauden kirol-instalazioak modernizatu eta hobetzeko, eta aparkatzeko zailtasunak arintzeko aukera izango du. Proiektu hau errealitate izan dadin, beharrezkoa izango da beste erakunde batzuekin finantzaketa-akordioak lortzea.





## LEZOKO UDALAK EZ DU ZORRIK DEUDA CERO EN EL AYUNTAMIENTO DE LEZO



**2015ean 2.988.030 euroko zorra zuen Lezoko Udalak. 7 urte geroago, zorrik ez izatea lortu da. Kontuan hartu behar da ere 2017tik zergak eta tasak izoztuta mantendu direla, hala nola EJZ, OHZ, zaborra, binetak, ura...**

**Pedro Etxarriekin hitz egiteko aukera izan dugu, Lezoko Udalean kontuhartzailer lanetan ibili izan zen langilea eta iaz erretiroa hartu zuena.**

### **Nola lortu du Lezoko Udalak zorrik ez izatea?**

Urtez urte, diru sarrera arruntak handitu egin dira; bai Foru finantzazioa eta bai udaleko diru sarrerak. Bitartean 500.000 euro ordaindu dira urtero eta aurten azken maila ordaindu du Lezoko Udalak.

### **Zein urtetik ez zuen udalak horrelako egoera ekonomiko saneatua?**

Lezoko Udaleran 1990.urtean iritsi nintzen eta orduan zorra bazegoen, ez hain handia. Baina, Kiroldegia eta beste

azpiegitura batzuk egitean zorra handitu egin zen.

2009an udaleko zorra hain handia zenez (4,5 milioi euro inguru) birfinantziatu behar izan genuen, ez genuen aukerarik ordaintzeko. Epea luzatu egin behar izan genuen.

### **Inbertsioak egiteko aukera handiagoak ematen ditu honek...**

Foru fondoa gaur egun mantentzen bada, bai. Foru Alduntitik jasotzen dugun diru-sarrera, ia aurrekontuaren erdia da, 4 milioi euro inguru. Baina urtero aldatu daiteke kopuru hau, hortaz, prudentzia eduki behar dugu beti inbertsio handiak planteatu aurretik.

### **Gipuzkoako udalerrri askok lortu al dute zorrik ez izatea?**

Hondarribiak, adibidez, ez zu sekula zorrik izan. Eta azkenaldian herri txikiak zorrik ez izaten saiatzen eta lortzen ari dira. Donostiak, Errenterriak eta Pasaia, ordea, zorra dute.

**En 2015 el Ayuntamiento de Lezo tenía una deuda de 2.988.030 euros. 7 años después, se ha conseguido no tener deudas. También hay que tener en cuenta que desde 2017 se han mantenido congelados impuestos y tasas como IAE, IBI, basura, viñetas, agua...**

**Hemos charlado con Pedro Etxarri, interventor del Ayuntamiento de Lezo durante 30 años que se jubiló el año pasado.**

### **¿Cómo ha conseguido el Ayuntamiento de Lezo no tener deudas?**

Año tras año han ido aumentando los ingresos corrientes, tanto la financiación foral como los ingresos municipales. Mientras tanto se han pagado 500.000 euros anuales y este año el Ayuntamiento de Lezo ha pagado el último préstamo que tenía.

### **¿Desde qué año el ayuntamiento no tenía una situación económica tan saneada?**

Llegué al Ayuntamiento de Lezo en 1990 y entonces ya había una deuda pero no tan grande. Con la construcción del Polideportivo y otras infraestructuras, la deuda aumentó.

En 2009 la deuda municipal era tan alta (unos 4,5 millones de euros) que tuvimos que refinanciarla, no teníamos posibilidad de pagarla. Tuvimos que ampliar el plazo.

### **Esto permite mayores posibilidades de inversión.**

Sí, pero solo si el fondo foral se mantiene. El ingreso que recibimos de la Diputación de Gipuzkoa es casi la mitad del presupuesto, unos 4 millones de euros. Pero es una cantidad que puede variar cada año, por lo que siempre debemos tener prudencia antes de plantear grandes inversiones.

### **¿Son muchos los municipios guipuzcoanos los que han conseguido no tener deudas?**

Hondarribia, por ejemplo, nunca ha tenido deudas. Y últimamente los pueblos pequeños están intentando y consiguiendo no tener deudas. San Sebastián, Errenteria y Pasaia, sin embargo, sí tienen deuda.



# BERRIAK

7

## Lezoko udal langileak Korrikan!

### ¡Trabajadores y trabajadoras del ayuntamiento, en la Korrika!

Korrikarekin gozatzeko aukera izan zuten lezoarrek apirilean. Lehendabizi, Korrika Txikiak Lezoko kaleak zeharkatu zituen eta txikienek gustura parte hartu zuten euskara aldarrikatzen duen ekimenean.

Gazte eta helduentzako ordutegia "gogorragoa" izan zen aurtengo edizioan, goizaldeko 04:07ak zirela iritsi zen korrika gure herrira. Guztira, 13 eragile ezberdinek eraman zuten lekukoa. Bi urte itxaron beharko ditugu orain berriz ere euskararen alde korrika egiteko.

Los y las lezoarras pudieron disfrutar de la Korrika en abril. Primero fue el turno de los más pequeños, en la Korrika Txikia. Disfrutaron por las calles del pueblo reivindicando el euskera.

Los jóvenes y los mayores, tuvieron un horario un poco más "duro". Fue sobre las 04:07 de la madrugada cuando la Korrika llegó a Lezo. 13 agentes sociales diferentes llevaron el testigo por el pueblo. Habrá que esperar 2 años más para poder volver a vivir momentos como éste.



## Bizikleta abandonatuak helburu sozialetara bideratu ditu udalak

### El ayuntamiento dona las bicicletas abandonadas a fines sociales

Lezoko Udalak abandonatuak edo erabilerarik ez zuten 9 bizikleta eman dizkio Gurpilartea elkarteari. Hauek konpondu ostean, Hibaika arraun elkartera bideratuko dira, beraien entrenamendu eta desplazamenduetan erabiltzeko.

Jesus Mari Martiarena, Lezoko alkatea, Oihan Lopez, Gurpilartea elkarteko presidentea eta Lezoko Udaltzainburuak parte hartu zuten banaketa honetan.

El Ayuntamiento de Lezo ha entregado a la asociación Gurpilartea 9 bicicletas abandonadas o sin uso. Una vez arregladas, se destinarán a Hibaika Arraun Elkartea para su uso en entrenamientos y desplazamientos.

Jesús Mari Martiarena, alcalde de Lezo, Oihan López, presidente de la asociación Gurpilartea y el responsable de la Policía Municipal de Lezo han participado en esta entrega.

## Lezo bai, Eskola Kirola ere bai!

### ¡Sí a Lezo y al Deporte Escolar!

Herrian zehar kamiseta berdeak ikusi al dituzu azkenaldian? Lezoko Eskola Kirolean gozaten duten haurrak dira. Oparitxoa jaso zuten urteetako bere lana eta jarduerarekiko atxikimendu eta alaitasun ekarpena medio.

Lezoko Eskola Kiroleko Batzordeak aurrera eraman duen ekimena da. *Garai ezegonkor honetan Eskola Kiroleko programan ilusio eta gogoz parte hartzen duten haurrek kamiseta jantzi eta harrotasunez Lezoarrak direla eta Eskola Kirolean parte hartzen dutela plazaratzea da helburua.* ¿Has visto últimamente camisetas verdes por Lezo? Son los niños y niñas que participan en el Deporte Escolar de Lezo. Se les premió con ese regalo por la ilusión y orgullo que demuestran con este proyecto.





# MENDE- KOSTEAK

## LEZO 2022



## EGITARAUA

### OSTIRALA - Ekainak 3 - Viernes

**17:45** Zabarre eta Maria Labaieni ongietorria kaian (jendea mozorrotua etortzea eskatzen da eta balizko istripuak saihesteko gurasoek arreta berezia jartzea). Murixkaren agurra.

Bienvenida de Zabarre desde el puerto (se pide que la gente venga disfrazada y ponga especial atención sobre las/los menores para evitar accidentes). Agurra del Grupo Murixka.

**18:15** "Indarkeriarik gabeko gunea" Piku kalean.  
"Espacio libre de violencia", en Piku kalea.

**19:00** Zabarre eta Maria Labaienen irtsiera udaletxeko atarira.  
Jarraian, "Pirata txiki"ek hasiera emango diote jaiari pregoiaren irakurketarekin udaletxeko balkoitik.

Ondoren, Murixkaren agurra, eta buruhandi eta erraldioen kalejira Munttar Txistulari Taldearekin.

Llegada de Zabarre y Maria Labaien al ayuntamiento.

A continuación, comienzo de las fiestas con la lectura del pregón por "Pirata txiki"s desde el balcón del Ayuntamiento.

Agurra del Grupo Murixka con posterior kalejira de gigantes y cabezudos, amenizados por Munttar Txistulari Taldea.

**20:00** Preso eta iheslarien aldeko kartelada.  
Encartelada a favor de presas/os y refugiadas/os vasca/os.

**21:00** Herri afari autogestionatua Gurutze Santuaren plazan. Flashmob bat Lezoko Eztandak elkartearen eskutik.

Cena popular autogestionada en Gurutze Santuaren plaza. Un flashmob de la mano de Lezoko Eztandak.

**23:00** Iratzar Erromeria Karlos Saldise plazan.

Ondoren, DJ Malakias eta Maixa Karlos Saldise plazan.

Iratzar Erromeria en la plaza Karlos Saldise. A continuación, DJ Malakias y Maixa en la plaza Karlos Saldise.

### LARUNBATA - Ekainak 4 - Sábado

**09:30** Diana eskualdeko dultzaineroekin.  
Diana amenizada por dulzaineras/os de la comarca.

**09:30** Motozaleen elkarretaratzea Itzel kafetegia-aren ondoan. Jarraian abiatuko dira. Concentración motera al lado de la cafetería Itzel. A continuación comenzará la marcha.

**12:00** Buruhandi eta erraldioen kalejira Munttar Txistulari Taldearekin Bekoerrotako kiroldegitik abiatuta.

Pasacalles de gigantes y cabezudos amenizado con Munttar Txistulari Taldea, partiendo desde el polideportivo Bekoerrotako.

**12:00** XX. mende hasierako erromerien dantzak herrian zehar.  
Romería con bailes de principio del siglo XX por las calles Lezo.

**13:00** Tomas Garbizu Lezoko Udalaren Musika Eskolako bandaren kontzertua eta Lezoko Dantzazaleen emanaldia, Gurutze Santuaren plazan.

Concierto de la Banda de la Escuela Municipal de Música de Lezo Tomas Garbizu con Lezoko Dantzazaleak, en Gurutze Santuaren plaza.

**16:00** Truk txapelketa Tiñelu elkartearen.  
Campeonato de Truk en la sociedad Tiñelu.

**16:30** Zumbako master classa Lezoko Eztandak elkartearen eskutik Gurutze Santuaren plazan.

Master class de zumba de la mano de Lezoko Eztandak en Gurutze Santuaren plaza.

**17:00** Dantza afrikarren ikastaroa Karlos Saldise plazan.  
Curso de danzas africanas en la plaza Karlos Saldise.

**17:30** Lezo pilota eskolako txapelketa finalak: benjaminak, alebinak eta infantilak, Josetxo Etxandi frontoian (eguraldi txarra eginez gero Koldobike Gezala frontoian).

Finales de pelota escolar: alevines e infantiles en el frontón Josetxo Etxandi (con mal tiempo en el frontón Koldobike Gezala).

**18:00** Muxikoak herrian zehar.  
Muxikos por las calles del pueblo.

**18:00** Elektrobuiaka elektrotzaranga heritik zehar, Karlos Saldise plazatik abiatuta.

Elektrotzaranga Elektrobuiaka por el pueblo, partiendo de la plaza Karlos Saldise.

**19:00** Buruhandi eta erraldioen kalejira

Munttar Txistulari Taldearekin, Bekoerrotako kiroldegitik abiatuta.

Pasacalles de gigantes y cabezudos amenizado por Munttar Txistulari Taldea, partiendo desde el polideportivo Bekoerrotako.

**22:00** Zezen suzkoa Gurutze Santuaren plazan.

Toro de fuego en Gurutze Santuaren plaza.

**23:30** Kontzertuak Karlos Saldise plazan: "Erroka" eta "Kilimak".

Concierto a cargo de los grupos "Erroka" eta "Kilimak" en la plaza Karlos Saldise.

### IGANDEA - Ekainak 5 - Domingo

**09:30** Diana eskualdeko dultzaineroekin.  
Diana amenizada por dulzaineras/os de la comarca.

**11:00** Azoka eguna Karlos Saldise plazan. Goizez eta arratsaldean (eguraldi txarra eginez gero Lezo Herri Eskolako patioan).

Día de mercado en Karlos Saldise plaza. Por la mañana y por la tarde (con mal tiempo en el patio de Lezo Herri Eskola).

**12:00** Herri kirolen erakustaldia Gurutze Santuaren plazan. Gorka Etxeberria eta Beñat Telleria harrian, eta Xabier Zaldua eta Alaitz Mugerza aizkora lanetan.

Exhibición de deporte rural en Gurutze Santuaren plaza. Gorka Etxeberria y Beñat Telleria levantando piedra, y Xabier Zaldua y Alaitz Mugerza en el corte de troncos.

**12:00** Buruhandi eta erraldioen kalejira Munttar Txistulari Taldearekin Karlos Saldise plazatik abiatuta.

Pasacalles de gigantes y cabezudos amenizado por Munttar Txistulari Taldea, partiendo desde Karlos Saldise plaza.

**17:00** Altxorraren bila. Irteera Gurutze Santuaren plazatik. Pirataz mozorrotuak etorri!!!

En busca del tesoro. Salida desde Gurutze Santuaren plaza. ¡¡¡Venid con el disfraz de pirata!!!

**19:30** Aukeran Dantza Taldea. "Hurrengo geltokia" dantza emanaldia.

Aukeran Dantza Taldea. Actuación de danza "Hurrengo geltokia".

**21:45** Zezen suzkoa Tomas Garbizu Lezoko Udalaren Musika Eskolako bandarekin, Gurutze Santuaren plazan.

Toro de fuego, amenizado por la Banda de la Escuela Municipal de Música de Lezo Tomas Garbizu, en Gurutze Santuaren plaza.